

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

1 positibo berri
2313 positibo guztira*

285 hildako

*Hernanin 55 Astigarragan 20

NAFARROAN

114 positibo berri
8449 positibo guztira

503 hildako
Sendatuak: EAE 16.688, Naf. 4.009

Maskarillak derrigorrezkoak izango dira gaurtik aurrera, distantzia mantendu ezin denean

Alarma egoerak irauten duen bitartean egongo da indarrean, eta aire librean eta erabilera publikoa duten espazio itxietan izango da derrigorrezkoa, bi metroko segurtasun distantzia ziurtatu ezin denean.

URUMEA COVID-19

Maskarillaren erabilera derrigorrezkoa izango da, gaurtik aurrera, aire librean eta erabilera publikoa duten espazio itxietan, bi metroko segurtasun distantzia ziurtatu ezin denean. Astearte iluntzean, Espainiako Gobernuak argitaratu zuen leku publikoetan maskarillen erabilera arautuko duen agindua. Gaur jarriko da indarrean, eta 6 urtetik gorako pertsonen eragingo die (sei urtekoak barne): erabilera publikoa duten espazio itxi guztietan eta aire zabalean izango da derrigorrezkoa maskara jartzea, bi metroko segurtasun tartea gorde ezin den tokietan.

Salbuespenak badaude, maskarilla ez erabiltzeko

Arnasa hartzeko arazoak dituztenak salbuetsita daude, baita beren osasun egoeratik edo mendekotasunen bat dutelako maskaren erabilera kalte egin diezaiekeen pertsonak ere. 3 eta 5 urte bitarteko haurrentzat, beharrezkoa ez, gomendagarria izango da, arau horren arabera.

Maskara higienikoak edo terapeutikoak izan beharko dute «ahal izanez gero», eta ahoa eta sudurra estali beharko dute. Espainiako Gobernuaren aginduak dio, maskara janztea ez dela derrigorrezkoa izango zenbait ekintza burutzeko, «euren izaeratik»; esate baterako, ja-



Maskarillak derrigorrezkoak izango dira gaurtik aurrera, zenbait eremutan.

teko eta edateko kendu daiteke. Azkenengo hamar egunetan erabaki hau hartu zitekeela ikusi zen, Gobernuak ordezkari desberdinek agerraldietan esan zutenaren arabera. Orain arte, garraio publikoan zen soilik de-

rrigorrezkoa. Astearte gauean argitaratu zen aginduan Espainiako Gobernuak argudiatu zuen Osasunaren Mundu Erakundeak eskatu duela murriztu egin behar dela Koronabirusa kutsatzeko arriskua ahalik eta

gehien, leku itxietan eta jendea pilatzen den tokietan.

Gobernuak gaineratu zuen, frogatuta dagoela maskarek gaitzaren hedapena saihesteko gaitasuna dutela. Arauak zehazten du, maskara jarrita izanagatik, COVID-19aren hedatzea eragozten duten gainontzeko osasun neurriak baliatzen jarraitu behar dela: segurtasun distantzia mantentzea eta eskuak garbitzea, besteak beste.

Alarma egoerak iraun bitartean erabili beharko dira maskarillak. Atzo, hain zuzen, alarma egoera beste bi astez luzatzea erabaki zuen Espainiako Gobernuak, Kongresuaren babes haundiarekin. Hilabete bateko luzapena planteatu zuen Gobernuak, baina azkenean hamaibost egunekoa adostu da.

Ertzaintzak ere atzo berri-itu zituen, aurreneko fasean eta une honetan dauden irizpideak, eta www.kronika.eus webgunean ikusi daitezke. **K**

15,5 milioi euro, lehen sektoreko jarduerara eusteko

Sektorearen erronkei erantzun nahian, aparteko neurriak jaso ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, COVID-19ak gehien eragindako azpisektoreei laguntzeko eta jarduerara dibertsifikatzeko.

URUMEA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak 15,5 milioi euro bideratuko ditu guztira, COVID-19ak eragindako krisiaren aurrean lehen sektoreak dituen erronkei erantzuteko. Jarduera ardatz nagusiak hauek izango dira: jarduerara ekonomikoari eta enpleguari eustea, kalterik gehien jasan duten azpisektoreei laguntzea, eta lurraldeen arteko oreka. Imanol Lasa Ekonomia Sustapeneko, Turismoko

eta Landa Inguruneko diputatuak, eta Xabier Arruti Nekazaritzako eta Lurralde Orekako zuzendariak, «Gipuzkoaren etorkizunerako funtsezkoa» den jardueraren oinarriak blindatzea helburu duen plan baten nondik norakoen berri eman zuten.

Planaren bidez, Aldundiak departamentuko «partida ekonomikoak eta programak berregokitu» ditu, «aurrekontu orokorra ukitu gabe», pandemiak eragindako beharrei erantzute-

ko eta horiek berreskuratzeko oinarriak «COVID-19aren osteko agertokian jartzeko». Asmo horretan, Foru Aldundiak, besteak beste, «inbertsioen eta hitzarmenen kapitulua gutxitzearen eta, alderantziz, sektorearen lehiakortasunerako eta modernizatorako funtsezkotzat jotzen diren laguntzen multzoari eustearen aldeko apustua» egin du, guztira 10 milioi euroko zenbatekoa bideratuta horretarako: «gure lehentasuna ekoizpen jardueraren biziraupena eta errentagarritasuna bermatzea da, baserritarrei zuzenean lagunduz».

Nekazaritza lantzen duten horientzat, laguntza plana Horien artean, nekazaritza lan-

tzen dutenentzako laguntza planak daude (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza), eta besteak beste, honako alderdi hauek hartzen ditu kontuan: enpresa kudeaketa hobetzea edo ekoizpen gaitasuna haunditzeko inbertsioak egitea; Mendialdeetarako Konpentsazio Ordainak; gazteak baserrian gelditzeko plana (Gazte Plana), zeinak belaunaldi erreleboa bultzatzen baitu ustiategiak martxan jartzea edo eskualdatzea babes-tuz; nekazaritza ingurumeneko neurriak; edo nekazaritza ekologikoari laguntzeko programa, ingurumenean eragin mesedegarria eta esanguratsua izatea ahalbidetzen duten ekoizleei zuzendua.

Baserritarrentzako ordezkaren zerbitzua ere, bere hartan utzi du, birusak sor ditzakeen gaixotasun bajei edo konfinamendu egoerei aurre egiteko. Oporrak eta bajak estaltzeko zerbitzua da, eta Aldundiak horretarako laguntzak ematen dizkie baserritarrei.

Era berean, planak hainbat neurri berri aurreikusten ditu, 5,5 milioi euroko zenbatekoarekin, eta funtsezko bi jardueraren eremu dauzka: sektoreari eta COVID-19ak kaltetutako azpisektoreei laguntzea, jarduerari eusteko funtsezko jarduerak sustatuz (4,5 milioi euro); eta udalerririk txikiak biztanleek eta udalen funtsezko premiei erantzutea (milioi bat euro). **K**

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

EGURDIA GAUR Bide beretik jarraituko du aroak. Egunsentiko lanbroa desegin ostean, eguzkia jaun eta jabe agertuko da zeruan eta termometroak 25-30 gradu artera igoko dira. **Min.13° / Max.25°**

BIHAR Udaberri giro bikaina, baina arratsaldetik aurrera lainoguneak ugarituz joango dira. Egunsentiko lanbroa desegin ostean, zerua ia erabat urdin agertuko da. **Min.17° / Max.23°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala

Donostia

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKARA ELKARTEA

GOIZUETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

ELKARTEA

Euskera eta gaztelera klaseak sustatzeko bolondresak behar dira

Amher elkarteak elkarrizketak bultzatu ditu binaka hizkuntzak ikasteko, telefono edo sare sozialen bitartez, garai honetarako.

HERNANI AMHER

Amherreko kide batzuek proposatu dute, euskera eta gaztelerrako klaseak elkarrizketa bidez egitea, bi pertsonaren artean, alarma egoeraren fase honetan, telefonoz edo sare sozialen bitartez. Horretarako, bolondresak behar dira, hizkuntza ikasten edo hobetzen laguntzeko, eta beraiekin kontaktuan jartzeari eskatu dute.

Amherren jardueretako bat dira gaztelania eta euskerako klaseak. Aurreko egoeran, lokalean bertan egiten zituzten, batzuetan goizez eta arratsaldetik, neguan eta udaran, baita hainbat mailatako klaseak ere,

bolondres eta ikasle nahiko egoten baziren.

Konfinamenduarekin egoera berriari egokitzea tokatu zaie. Hasiera batean *whatsapp*eko talde baten bitartez aritu dira, baina pertsona batzuek proposatu dute elkarrizketan aritzeko klaseak jasotzea, eta beste batzuk, berriz, bere borondatez aurkeztu dira ikaskuntzan laguntzeko. Horregatik, aurreko astean, ezagunei luzatu zaie gonbitea, deien bitartez parte hartzeko, klaseak eman edota jasotzen.

25 pertsona inguru bikoteka ari dira parte hartzen

25 pertsona inguru ari dira parte hartzen, bikoteka, eta badira

lagun gehiago klaseak jasotzeko gogoia dutenak, hizkuntzak ikasi edo hobetzeko.

Hortaz, denbora dutenei eta gaztelera edo euskera menderatzen dutenei, laguntza eskatu zaie. Bolondresak behar dituzte klase gehiago sustatzeko.

Telefono-deien bidez (bi pertsonen wifia badute, sare sozialen bidez; bestela, telefono-deien bidez) elkarrizketan edo hizketan aritzen dira.

Eskaerak koordinatzen dituen taldeak osatzen ditu bikoteak. Gero, bi pertsonak ados jartzen dira, egokien datorkien ordutegiarekin.

Bertan parte-hartzeko, laguntzaile edo ikasle bezala, ondorengo telefono zenbakira idatzi behar da *whatsapp* bidez: 667 710 928. Bestela, mezu pribatu bat idatzi daiteke *Facebook* bidez, Amher Sos Arrazakeriara. **K**



Gudarien Plazan egin zen elkarretaratzea, distantziak mantenduz.

Patxi Ruizi babesa, Hernanin ere

HERNANI ELKARRETARATZEA Hernanin ere egin zen Patxi Ruiz presoaren aldeko elkarretaratzea, Gudarien Plazan, eta egoerak eskatzen duen bezala neurriak betez. Lagun ugari

bildu ziren kontzentrazioan, lelo honekin: *Eutsi gogor, Patxi! 8 egunez gose eta egarri greban. Zurekin gaude!* Gainera, atzotik aurrera egunero egingo dute kontzentrazioa.

Xapo aldizkaria iritsi da etxeetara

GOIZUETA KOMUNIKABIDEAK

Xapo aldizkariaren azkeneko zenbakia, 18garrena, Goizuetako etxeetara iritsi da dagoeneko. Ale honetan jaso dituzte, honakoak: Zahagi Dantza eta emakumearen presentzia, eskolako ikasleen ekarpena, Alaitzen Peruko bidaia, Piliren begiekin Goizueta iruditant, udal taldekideen legegialdiaren balorazioa, nazioarteko jaia eta beste hainbat kontu. Goizuetako kultur taldeak eta Udalaren Euskara Zerbitzuak argitaratzen dute Xapo urtekaria, eta ale berriena irakurri nahi dutenek, Udalaren webgunean ere eskura dezakete.

Amherreko 'Aita Camara'ren aberrirratzea lortu da, «jendearen elkartasunari esker»

URUMEA AMHER

Orain dela hilabete hil zen Aita Camara Amherreko kidea, eta orduan, Amher elkarteak gorputza aberriratzeko dirua lortzen lagundu nahi izan zuen. Kontu berri bat ireki eta herritarrei laguntza eskatu eta gero, dirua lortu eta aberrirratzea gauzatu dela jakinarazi du Amherrek, eta eskerrak eman ditu ekarpenengatik.

Leitzara martxa, bertan behera

HERNANI ELUR TXORI

Elur Txori elkarteak urtero antolatzen du Leitzara martxa, baina aurten ez da posible izango. Ekainaren 7rako zegoen iragarritan, eta COVID-19ak sortutako krisiaren ondorioz, bertan behera geratu da aurtengo edizioa. Datorren urtean izango da bueltan.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **ESKERTZA**
Sabino Leiza Reparaz
Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -

Sabinoren emazteak, seme-alabek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK



Hernanin, 2020ko maiatzaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Ahozko kultur sorkuntza ikertzeko deialdi berriak jarri dira martxan

2.000 euroko bi proiektu sari, eta doktorego aurreko ikerketa kontratu bat esleituko dira, eta ekainaren 26ra arte aurkeztu ahal izango dira.

URUMEA MINTZOLA

Edozein jakintza alorretatik abiatuta, antzerkia, bertsolari-tza, kantagintza, kontalaritza edo euskeraz egiten den ahazko kultur sorkuntzaren baten ikerketa egiteko aukera eskaini du aurten ere Mintzolak: bi deialdi jarri berri dituzte martxan, EHUKo Mikel Laboa Katedraren elkarlanean.

Batetik, 2.000 euroko bi pro-

iektu sari eskainiko dira: lanak urtebeteko epean egin beharko dira. Bestetik, EHUn gauzatuko den doktorego aurreko ikerketa kontratua eskuratzeko deialdia ere egin da. Kasu honetan, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara eta Ikerketa errektoreordetzek ere babestu dute deialdia.

Deialdi batean zein bestean parte hartzeko, ikerketa proposamenak ekainaren 26a baino lehen bidali behar dira, eta

ebazpena uztailaren 20rako jakinaraziko da.

Pello Mari Otaño beka deialdia ere, irekita

Ekainaren 19ra bitarte aurkeztu ahal izango dira proposamenak Pello Mari Otaño bekarako: Aiztondoko ahozkotatua eta ahozko kultur sorkuntza ikertzeko helburua duten proiektuak hartuko dira aintzat, eta hautatuak 3.000 euroko dirulaguntza jasoko du lana garatzeko. Xehetasun gehiago ondorengo estekan: <https://www.mintzola.eus/eu/bertsolaritzaren-ikertegia/ikerketa-kontratu-eta-sariak>. **K**

Langile ikastolak maiatzaren 23rako prestatu zuen festa, bertan behera

Egun horretarako txartelak erosi zituztenei gordetzeko eskatu diete, egoerak ahalbidetzen duenean ospatuko baita festa.

HERNANI LANGILE IKASTOLA

COVID-19aren pandemia eta honen aurrean indarrean dauden neurriak direla eta, bertan behera geratu da, Langile Ikastolak maiatzaren 23an ospatu behar zuen ikasle ohien festa eguna,

50garren urteurrenaren egitarauaren barruan.

Hala ere, egun horretarako aurrez erositako txartelak gordetzea eskatu dute, egoerak ahalbidetzen duenean gauzatuko baita ospakizuna. Eta data berria zehaztearekin batera, egin beha-

rreko kudeaketa zein aldaketen berri ere jakinaraziko dira.

Bestetik, ikastolatik esker-erak eman nahi izan dizkiete egun hau antolatzen laguntzen eta erraztasunak jartzen ari zirenei eta ariko direnei; aurkezle, bertsolari, musikari, sagardotegi, DJ eta ospakizun berezi honetan parte hartzeko irrikaz geratu den orori. Laster berriz ere egitarauari eutsiko diotelakoan daude. **K**